

ttüpi-ttapa

1994.eko irailak 8 • 141. zenbakia

Elkarrizketa
Ixabel Aleman



KARMELDARRAK:

OTOITZA ETA LANARI

EMANDAKO BIZIA

NAFARROA OINEZ-94



Irailaren 18an, BERAn

- 9 kilometroko zirkuitoa
- 18.000 auto eta 700 autobusendako aparkalekuak
- Ikuskizunez betetako 8 area
- Goiz-arratsaldez giro ederra
- Sorpresa bat baino gehiago...

Goiti, Goiti

ttipi-ttapa

Orain
publizitatea
koloretan
zuri beltzekoaren
prezioan

Deitu tamainak
eta prezioak
kontsultatzeko

☎ 631188

DATUAK

❖ *Amaiurtar hau lanbidez erizaina da eta Elizondoko Osasun Zentroan egiten du lan.*

❖ *Kasik sei hilabete pasatu ditu El Salvadorren Askapena erakundearekin brigadista modura.*

❖ *Bertakoek agertu dioten esku zabaltasunarekin txunditua gelditu da.*

❖ *Berak dioenez, lehen munduan bizi garen bezala bizitzen segituz gero, hirugarren munduan orain bezala segitzera kondenatuak daude.*

TESTUA:
JOXEMANUEL IRIGOIEN

Ixabel ALEMAN:

«Guk sobrantea ematen dugu eta beraiek, berriz, duten guzia»

EL SALVADOR- EKO ZEIN TOKITAN EGON ZARA?

Chalatenangon. Hondurasekin muga egiten du eta gerra denboran Frentearen zona liberatua izan zen.

ZERK ANIMATU ZINTUEN BIDAI HAU EGITERAT?

Gehienbat kuriosidadeak. Erizaintza ikasten hasi nintzenetik, beti ezagutu dut holako esperientzietan ibili den jendea. Geroago modua ikusi eta horixe egin nuen: erabaki eta joan.

SEI HILABETEOTAN ZERTAN ARITU ZARA?

Erizaina naizenez, Frenteak (FMLN) duen 'Provida' erakundearekin jarri nintzen harremanetan. Hauek Guajila izeneko komunitatera bidali ninduten. Komunitate horretan badago klinika popular bat eta bertan laguntzen nuen umeen erregistro berriak egiten, tuberkulina bezalako xertaketa berezietan... Batez ere antolakuntza lanetan.

ZEIN DA BERTAKO EGOERA SOZIOPOLI- TIKOA?

Gerra akitu zenetik gauzak izugarri moteldu dira. Hauteskun-



deetan Frenteak galdu egin zuen eta jendea desanimatua dago: '12 urtez gerran eta gero hau!' diote. Inflazioa ere ikaragarria da eta ume desnutrituak ere ikusten dira.

NOLAKO HARRE- MANA IZAN DUZU BERTAKOekin?

Auzokoekin eta

izugarriko tratua. Jakinmin haundia agertzen dute, ea zergatik joan garen eta horrelakoak galdetuz. Badakite Euskal Herrian gatazkaren bat bizi dugula eta hori esplikatzen saiatzen gara gu. Gerogainera, banituen hemengo argazki batzuk eramanak eta harrituak gelditzen ziren. Ez zuten sekulan elurra ikusia eta ezta bildotsak ere. Dena den helburua jendearekin harremanatzea zen eta horrek pila bat bete nau. Guk sobrantea ematen du-

gun bitartean, beraiek duten guzia ematen dute. Hor dago diferentzia. Jakinmin haundia dute baina beraiena ere kontatu egiten dute eta ez hemen bezala gorde egiten dugula. Gero, azken egunetan, bihotza bildu didana zera izan da; 'Jo, Ixabel etorri etorri zeren guk sekulan ez dugu bertze mundurik ezagutuko', eta egia da, nahiz eta gu aberatsak ez izan badugu harat joateko modurik, eta beraiek ez dute aukera berdinarik izanen.

» *Jakinmin haundia agertzen dute, ea zergatik joan garen eta horrelakoak galdetuz. Badakite Euskal Herrian gatazka bizi dugula eta hori esplikatzen saiatzen gara gu»*

MARI CRUZ URRETXUARRAK 47 URTE DARAMAZKI KLAUSURARA MONJA BEZALA, "BAINA OSO POZIK" DIO IRRIFARREZ, ENKUADERNAZIO LANETAN BURU-BELARRI ARI DEN BITARTEAN. KOMENTUKO ZAHARRRENAK 74 URTE DITU, GAZTEENAK 30 BERTZERIK EZ.



Gaur egunean, gutti dira norberaren borondatez lau hormen artean sartu eta bertan bizitza oso emateko prest dauden pertsonak. Horixe da, hain zuzen, klausurako monjek egindako aukera. Horietako batzuk Donamarian topatu ditugu, karmeldarren komentuan. Baina ez pentsa urteak barnean pasatu arren aspertzeko denbora haundirik dutenik.

TESTUA
AITOR AROZENA
ARGAZKIAK
KARMELE TOLOSA

DONAMARIAKO KARMELDARRAK: ELKAR EZAGUTZA, OTOITZA ETA LANARI EMANDAKO BIZIA

Klausurako monja izatea, bizitzeko bide berezia hartzea da. Honela mintzatu zaigu Olatz Garmendia, sortzez azpeitiarra den Donamariako karmeldarren komentuko ama superiora. "Jendeak uste du espetxe batean gaudela, baina gu ez gara espetxean sentitzen". Aldaketak soma-

tzten dira barrenean. Adibidez, klausuraren ezaugarria ziren barroteak duela urte pare bat kendu dituzte. Hiru zutabetan banatzen da karmeldarren bizia: otoiiza, lana eta elkarrekin dituzten hartue-manak. "erlijiosa mota batzuk, elkarrekin bizi arren ez dute elkarrekin hitzegiten.

Gukberri bai, bazkalondoan eta afalondoan ordu bana dugu elkarrekin solasteko, gure gorabeherak kontatzeko, karmeldarren bizitzaren berezitasuna da hori". Hala ere bakardadearekin tartekatzen dute, lan orduetan, bakoitzak bere gelan bakar-lana egiten baitu.



OLATZ GARMENDIA, DONAMARIAKO KARMELDARREN AMA SUPERIORAK PAREZ PARE ZABALDU DIZKIGU KOMENTUKO ATEAK

**ENKUADERNAZIO,
JOSTUN ETA BARATZE
LANAK**

Monjek bizia Jainkoari eskeintzen badiote ere, ez dute errezoan igarotzen egun guztia. Donamariakoak enkuadermazio lanengatik ezagunak dira. Horretaz gain, Iruñeko denda baterako jostun lanak egiten dituzte eta baratzean ere ordu aunitz ematen dituzte, udan batez ere. Kontuan hartu behar da hektarea osoa dutela lantzeko, hamabortz monjen artean. Bertako fruitu produkzio haundia (udareak eta sagarrak, gehien bat), inguruko denda eta eskoletara saltzen dute. Barazkiak berriz, komenturako gelditzen dira. Oilategi txiki batetik, *etxerako* arraultzeak hartu eta gainezka galditzen direnak saldu egiten dituzte. Ur putzu ttiki bat egina dute baratzean. *“Hasieran kolorezko arraitxoak jartzeko zegoen baina monjok denari probetxua ateri nahi diogu eta amuarrainak hazten ditugu orain”*. Bertze lan berezia dute azken hiru urteotan, Doneztebeko parrokiako palioa egitea. *“Aspertzeko denborarik ez dago hemen —dio Olatzek— aspertuta dagoena*

etorri dadila eta bilatuko diogu lana!”.

KANPOKO JENDEAREKIKO HARREMANA

Erosketak egiteko Mari Carmen —Donezteben eta inguruan aski famatua— eta furgoneta dute. Gainerakoak, normalean komentu barnean egoten dira eta derrigorrezkoa denean bakarrik ateratzen dira. Otoitzera etorri nahi duenarentzat, ospederia dute (8 gela eta 12 bat ohatze) eta

pertsonai famatuak egon dira bertan, Helder Camara, Brasilgo artzapezpikua lekuko. Etortzen diren gehienak errepikatzen omen dute. Herritarrekin harreman bikaina dute: *“asko maite gaituzte eta guk beraiei ere. Oso herrikoak sentitzen gara. Gazteak bes-tetan eta Inauteritan etortzen dira, hori bai, ongi bazkaldu eta lotsak kendu dituztenean”*. Tebista ere badute, baina hau ikusten denborarik galtzeko ez: *“Teleberriren bat ikusten dugu eta programa interesgarri bat dagoenean abisatzen digute. Bertzela ez dugu pizten”*.

FAMILI GIROA

Santa Teresak duela 400 urte ordena sortu zuenean nahi zuen bezala, hamabortz monjek famili bat osatzen dute. Hiru urtetik behin ama superiora aukeratzen dute demokratikoki, baina erabakiak denen artean hartzen dituzte. Olatzek erraten duenez, klausura monjei buruz dagoen irudi iluna gehiegizkoa da. *“Jendeak ez gaitu ezagutzen baina, erru guztia ez da beraiena, gurea eta Elizarena ere. Gu pertsona irekiak gara, baina bitxo arraroak bezala ikustengaituzte eta hori konpontzeko harremana behar da”*. ■

Egun bat komentuan

- 6,30. Jeiki
- 7. Otoitza (Goratarreak abestuz eta bakarkako otoitza)
- 8,30. Meza
- 9. Gosaria.
- 9,30-12,30. Lana. (bakarkakoa, bakoitza bere gelatxoan).
- 12,30. Sextak (otoitza)
- 13. Bazkaria.
- 13,20. Eguerdiko errekreoa, elkarrekin egoteko.
- 14,20. Otoitza.
- 14,30. Atsedena (bakoi-tzak nahi duena egiten du).
- 15,30. Formazio permanentea (Erljiyo ikasketak elkarrekin).
- 16,30. Lana
- 18,30. Kantu entsaiua.
- 19. Bezperak (arratseko otoitza). Ondoren bakarkako otoitza.
- 20. 10. Afaria.
- 20,30-21,30. Gaueko errekreoa.
- 21,30. Irakurketa.
- 22,00. Azken otoitzak. Irakurgaien otoitza.



1960AN ETORRI ZIREN KARMELDARRAK DONAMARIAKO JAUREGIRA

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 5.800 ALE

ARGITARATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE
HERRIKO ETXEO PLAZA, 1
31780 BERA
TFNOA.: 63 11 88
FAXA: 63 12 91

uzendaria: Joxemanuel Iri-
bien. **Publizitatea:** Miren Kar-
ele Tolosa. **Erredakzioa:** Ai-
r Arozena, Joxemanuel Iri-
bien. **Erredakzio taldea:** Pe-
o Apezetxea, Juainas Paul,
Kristina Boan, Bittori Telletxea.
erriemaileak: Joseba Azpi-
z, Esteban Arozena, Juana
Mari Saizar, Ainhoa Mutuberría,
an Isasi, Txema Aldabe, Pello
txegia, Txema Urroz, Patxi
txandorena, Daniel Martirena,
abel Maia, Josune Etxebeste,
ablo Mendiburu, Joseba Iga-
bide, Alizia Olaiola, Margari
xenike, Koro Irazoki, Mixel
erendiain, Jacqueline, Marta
rria, Oskar Txoperena, Al-
erto Sansiñena, Pello Apeze-
ea, Aitor Arozena, Kristina
an. **Kolaboratzaileak:** EHNE
Nafarroa, Patxi Lasá, Josetxo
usperregi.

primategia: Gertu (Oñati).
ttiipi-ttapak ez du bere gain
hartzen derrigorrez, aldizkarian
dierazitako erranen eta eritzien
antzukizunik

arakunde Laguntzaileak:
era, Leitza, Goizueta, Areso,
aztan, Urdazubi, Zugarramur-
eta Sarako udalak, Bor-
rietako Euskara Mankomuni-
tea, Malerrekako Zerbitzu
ankomunitatea...



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Nafarroa Oinez eta euskararen egoera eskualdean

Euskarak urteko erregaia hartu behar du Nafarroa Oinez



Mikel IRIARTE
Baztandarren Biltz.

Urtean behin ospatzen den euskararen aldeko ekitaldi honek, urtean zehar euskararen motorra elikatuko duen erregaia izan behar du. Ez da nahikoa bertan ateratako diruarekin ikastolen paretak eraikitzea, baldin eta euskara paretan hoinen barnean geldituko bada edo Oinez-eko giroan murgildurik euskara egitea eta etxean erdara. Nafarroa Oinezek kontzientziak inerrautsteke balio behar du; euskara dun eta dundu behar lirakekeen konzientziak. Alferrik da inori euskara ikasten animatzea ondotik solasteko aukera ematen ez bazaio, edo administrazioari eskubideakeskatzea ez badira probexten. Oinez doaienak aitzinetegiten du, nafarrok gibelat gelditu nahi ez badugu euskara laguntzat hartu behar dugu. Nafarroa Oinez-en hartutako erregaia ez kolpean gasta baizik eta egunero, euskararen motorra nonahi eta noiznahi entzun daien.

Euskara zerbitzuen plangintza bideratuz egoera hobetuko da



Juainas PAUL ARZAK
Langarra eusk. taldea

Azken 12 urteotan, zona honetan Nafarroa Oinez ospatzen den laugarren aldia bada ere, euskarak zailtasun berberetan segitzen duela iduritzen zait noski. Besteintikoan, Nafarroa Oinez helburua normalizazioa ez baita, agerpen testimoniala, besta eta diru bilketarena baizik: ikastolaren aldeko apostua alegia. Irakaskuntzan, udal administrazioan edo lan munduan euskararen egiazko presentzia murrizta da hagitz. Legeak bai, hor dira, onak ez izanda ere, baina ez dira betetzen ez goitik ez gure tartean. Euskarari bazterreko tokia ematen diogu, arrazoizko erizpiderik hartu gabe. Alkate erdaldunak, alfabetatzen ez diren zinegotziak, administrazio langileen euskalduntze eza... horren ondorio lotsagarria besterik ez da. Egoera hau hobetzerik badago, dudarik gabe, bertako euskara zerbitzuen plangintzak bideratuz. Besterik ez da behar.

Euskararen normalizazioa bide onetik doaie



Joxe Mari LERTXUNDI
Ikastolako gurasoa

Euskararen normalizazio bidearen balorazioa egiterakoan baikor azaltzea zilegi da. Bortzirietako ikastetxeetan %90ak euskara hutsean ikasiko du aurten. Eguneroko harremanetan normalizazio bide horretan aitzinerat goaz. Baina gaia pittin bat jorratuz gero kontraesanak agertzen dira. Gizartea gero eta konpetitiboagoa ari gara egiten. Efika-ziaren izenean, herritar guzuen eskubideen izenean... babesten gara, gure borondate eza eta harrokeria izkutatzeke, eta ondorioz erdara garaile. Egoera ez da lasaigarria, baina ezta itxaropena galtzekoa ere. Gure alde dugu gaztedia, euskara mankomunitatea, IKA euskaltegia, ttiipi-ttapa... eta gure alde Nafarroa Oinez 94ko antolakuntzan parte hartzen ari den jende pila. Aprobetxa dezagun horrelako bestak sortzen duen giroa, ea kutsatzen digun eta bertze urrats bat izan dadila euskararekiko dugun konpromezua berpizteko.

LEGARRA

- PAPERTEGIA • TABAKOAK •
- LIBURUAK • OPARIAK •

ZERBITZUAK

- ⇒ Fax Publikoa
- ⇒ Enkuadernazioak
- ⇒ Inprenta lanak • fotokopiak
- ⇒ **%25eko**

deskuentoa
diska, kasette eta liburuetan
Legarrea 9, © 637030 - LESAKA

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK



ERRO BIDAIK

- × HERRIAK
- × MENDIAK
- × TURISMOA
- × TREKING eta BIDAI ALTERNATIBOAK

BIDAI AGENTZIA
G.A.T. 2.015

ADUANAKALDEA, 5
☎ 943 - 615177
☎ 943 - 619489
FAX 943 - 619517
20.300 IRUÑ



Euskararen egoera eskualdean

Manolo AROZENA

Doinua: Egoñaren zortzi puntuko doinu berria

Garai batean Gora Euskadi esaten genuen errez hamaika oihu, hainbeste salto sentitzen ginen indarrez "etsaiak orain entzun beharra izango dik derrigorrez" osatu gara boterez itxuraz dena da legez hobekuntzarik baterez hau ikusita begiak malako iturri dirade berez itxaropena bada oraindik eta ez hasi negarrez (bis).

Euskaldunentzat euskarak badu pixu eta garrantzia agintariak eta herriak nahiz hori daukan ahantzia sarritan dago gure mingaina erdara hutsez jantzia arbasoen herentzia alde batera utzia galdu dut pazientzia irailaren hemezortzia ilusiozko antsia ez bedi izan mehatz zuloan egiten den irrintzia (bis).

Doneztebeko DYA

Orain 3 urte hasi zen mar-txan. Jendeak gure hel-buruak jakitea nahi genuke. Hau ez da lan bat, eta hemen gauden guztiak boluntarioak gara. Bakoi-tzak bere lana-ikasketa dauka, eta asti librean zerbitzuetarako txanda-tzen gara.

Istriputan edo larrialditan laguntza eskuratzeko dira zerbitzu hauek. Honetaz gain, herri kirol, txirindula karrera eta antolatzen diren bertze edozein kirol frogetan edo kultur ekital-dietan laguntzen dugu.

Baina DYA ez da gurega-tik bakarrik bizi. Guk den-bora eta borondatea para-tzen dugu, Nafarroako Gobernuak anbulantzia uzten digu, Doneztebeko Udalak lokalak eta bertze udal eta jendearen lagun-tzari esker mantentzen dugu anbulantzia, botikak, argi indarra...

DYArri laguntzeko ez da beharrezkoa bertan sar-tzea, baina horretara ani-matzen dugu jendea. Ez da zaila. Egin behar den bakarra, udako sokorris-mo ikastaroan sartzea da. Bertan oinarritzko ezague-ra batzuk hartuko dituzu, denok ikasi beharko geni-tuzkeenak "bada ezpada

ere". Horren ondotik 18 urteak beteak badituzu, gutako bat izaten ahal zara. Animatu! Ez zara damutuko.

DONEZTEBEKO DYA

Preso politikoak gose greban, eta gu?

Preso politikoen kolekti-boak gose-grebari ekin zion irailaren 3an. Eraba-kiaren berri agiri baten bi-dez eman zuten. Hona ide-i nagusiak:

- "Gutaz toxikazio eta ma-nipulazioa zabaltzen ari da une honetan".

- "Preso gaude Euskal Herriaren askatasuna de-fenditzeagatik". "Preso izanik ere Euskal Herria-ren askatasuna lortzeko borrokan jarraitzen dugu". "Gure askatasuna eta Euskal Herriarena gauza bera dira".

- "Etsaiek gure egoera erabili nahi dute askapen prozesua geldiarazteko".

- "Euskal Herriak bizi behar badu, bere etorkizuna hautatzeko ahalmena izan behar du. Hori da gure bo-rrokaren zentzua; Auto-determinazioa lortu, lu-rralde batasuna eraki".

- "Borreroak gure aurkako erasoaldi berriak presta-tzen ari dira erreintertzio-aren inguruko eztabaida faltsua zabaldu dute ko-

munikabideetan. Presoen egoera eta nahia jakin nahi duen edonork guri galde-tzea besterik ez du". "Gu ez gara damutzen egin-dakoaz, egiten dugunaz ezta egiteke dugunaz".

"Aviles bezalako gartzele-roak PNV eta PSOEnen bulegoetan diseinatzen den politika errepresiboa garatzen ari dira".

- 600 presoetatik dozena batek amore ematea urte luzez jasan duguna jasan ondoren lorpen gisa aur-keztu nahi izatea lotsaga-rria da".

Presoak garbi mintzatu dira. Hauxe da komunika-bide gehienetan estali nahi duten errealitatea perso-na gutti batzuen iritzia lau haizetara zabalduz eta 600 lagunena isilaraziz. Erreintertzioa etsaiak askatasun mugimendua zatitzeko erabiltzen duen tresna errepresiboa da. Amnistia ordea, Euskal Herriaren eskubide de-mokratikoak eskuratzeko, honela bakarrik ez baitira preso gehiago izanen. Presoek agirian dioten bezala "denok ematen badugu zerba-it, zuek ka-lean eta guk hemen, ga-raipena gurea da". Orain gure txanda da.

AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEAK

OKANE

Harategi - Urdaitegia

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA

☛ Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxoaz garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz! ☛

BERA
DESINFECCIONES

☎ 63 01 55
BERA


ALKAR TETXEA

JATETXEA

HARAGI ETA ARRINETAN
ESPEZIALIZATUA

Erreserbak egiteko deitu 627637 tra

Antoiu 26 • LESAKA



Diario de Noticias 94-VIII-26

«Orain Ruandara bidaltzen den laguntza momentu konkretu honetarako da, hau ongi dago bizi ala hilko egoera delako, baina laguntzak beti etorkizunerako perspektiba izan behar du».

Jose Javier ETXEBERRIA
Ruandan egondako mediku goizuetarra
Diario de Noticias 94-VIII-26

«Bandera espainola ez jartzeagatik inhabilitazio-zigorra erabakiz

gero, nik baino gehiago haiek galduko dutela uste dut».

Juan ORNOZ
Leitzako alkate eta EAko parlamentari forala
Egin 94-VIII-31

«Hogei segundutan dena erabakitzen da eta huts bakar batek zure aspirazio guztiak bertan behera utz ditzake».

Mikel SARALEGI
Leitzako harrijasotzailea
Diario de Noticias 94-IX-2

◆ **Bizitzeko, herri ttikian edo haundian?**

❖ Ttikian, lasaitasun gehiago.

◆ **Pertsona batean, zer duk gustokoena?**

❖ Xaloa izatea eta fintasuna.

◆ **Eta guttien gustatzen zaikena?**

❖ Faltsuak eta hitaz probexu nahi dutenak.

◆ **Politika interesatzen zaik?**

❖ Lehen bai, orain ez, finak ez direlako.

◆ **Besta politenak, nongoak?**

❖ Herri ttikitan, inguruan Goizuetakoak.

◆ **Oraingo gazteak edo duela hamar urtekoak?**

❖ Duela hamar urtekoak ardurua gehiago hartzen zuten.

◆ **Herri ttikiek etorkizunik al ditek?**

❖ Gero eta guttiago, nekazarie lagundu egin behar da eta ez ateak itxi.

◆ **Bikote batek, zenbat haur?**

❖ Bi nahikoa, OPUsekoak bost edo sei.

◆ **Karreterari beldurra?**

❖ Errespeto handia, bi aldiz ikasi dit ibiltzen.

◆ **Ihizturiak, bai ala ez?**


❖ Ihizturia bai, fina izanez gero.

◆ **Jende jatorrena non?**

❖ Goizueta eta Igantzin.

◆ **Igandetan mezetara?**

❖ Lehen bai, orain lo.



Xanti MUTUBERRIA
Soldiasko iturgina



Legia 11 - 63 06 64 BERA



KIROLAK ZELA

Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98

BERA

MASAIA eta Bizkortze ariketak

TXOMIN IRAZOKI

(Fisioterapeuta)

EGUN OSOAN

- Goizetan 9,30etatik aitzinera
- Arratsaldetan 2,30etatik aitzinera

Eztegara 24, Tfnoa: 63 13 91 - BERA

MOLINERO

PINTURAK



Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio problemak moldatuko dizkizugu eta gainera, barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoen araberako prezioetan.

Eztegara 19 - ☎ 63 02 40 BERA



Illekuetako bestak asteburu honetan

Juan Karlos Garrok, Coloradon burutuko diren Mundialetara joateko aukera du

KRISTINA BOAN

Aurten ere Santakruzak direla eta, Illekueta auzoak bere bestak ospatuko ditu. Nafarroa Oinez dela eta, aitzindu behar izan dira ospakizunak.

Larunbata 10ean, arratsaldeko 4etan altxaferoa bota ta hasiko dira bestak. Ondotik haurrentzako jokoak eta herrikoentzat Matzadako XXVII. Tiro txapelketa izanen dira. 6etan, Gure Txokoako dantzariak arituko dira eta ondotik aizkolariak. Arratsean Amalur musika taldeak dantzaldia eskainiko du.

Igandez, 11etan Meza ospatuko da auzoan bertan. Biak inguruan Illekuetako karrikan Herri Bazkaria eginen dute. Ilunabarrean, auzoko eta herriko akordioilari eta trikitilariak emanaldia eskainiko dute. Hamarrrak arte Ramontxorekin dantzaldia izanen da.



Berako bestetan, abuztuaren 7an, Arretxeren kontra jokatuako partiduan ez zuen garaipenik lortu. Hala ere, Berako herriak omenaldia eta txanpaina ausarki eskaini zion.

Argazkia: BITTORI

Garro Mundialetarara joateko esperantzarekin

Juan Karlos Garro Nafarroako Txapel-dun suertatu ondotik Mundialetara joateko aukera haundiak ditu. Momentuz Granadan dago bertze zazpi txirrindularirekin batera probak egiten. Emai-

tzen arabera, zortzi horrietako lau izanen dira Coloradora Joateko aukeratuak. Zortzi horien artean, hiru euskaldunak dira.; Olabarrria gipuzkoarra, Albi-zua bizkaitarra eta Garro bera.



ttipi-flash

Arbola subasta

Montoia eta Uslakaba aldeko oihanak subastara ateratzea onartu du Berako Udalak. Bi loteren artean kasik 8.400 pinu daude eta gutzira 40,6 milioi pezetatan baloratuak daude.

Nafarroa Oinez erakusketa

Ortizal honetan hasi eta heldu den 18 arte, Iparralde, Baztan, Bortzirriak, Malerreka eta Irun aldeko zenbait margolarien lanak erakutsiko dira. Asteazken zehar arratsaldeko seieta-tik zortzi t'erdietara idekia egonen da. Asteburuan goizeko hamabietatik bi t'erdietara eta arratsaldean bertze egunetako ordutegian. 18an egun osoz idekiak egonen dira Kultur Etxeko atean.

Yoga

Hilabete honetan eta urrian hastekoak dira Yoga ikastaroak. Rikardo Baroja eskolan izanen dira eta interesatuek 631354 tfnora dei dezatela.

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

BOAN TAILERRA

 CITROEN Banatzailea

KOTXE BERRIEN

ERAKUSKETA ETA SALMENTA

Herriko Etxeko Plaza - BERA

SAROBEn

okindegia 

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

Errekaldeostatua

Ortiziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA



Bandera espainola ez paratzeagatik epaitegian deklaratu zuen alkateak

Guardia Zibilaren denuntziari erantzunez "eskualdeko ohiturak bete zituela" erran zion Jose Luis Etxegaraik epaileari

AITOR AROZENA

Sanferminetan bandera espainola Herriko Etxean ez paratzeagatik abuztuaren 24ean epailearen aitzinetik pasatu behar izan zuen Jose Luis Etxegaraik alkateak.

Guardia Zibilek bi alditan erran omen zioten alkateari estatuko bandera ezartzeko, ikurriña, Nafarroako eta herriko banderekin batera. Honen ordez, herriko ikurra bakarrik utzi zuen, "bestak giro alai eta paketsuan iraun zezaten baldintza egokiak sortzeko asmoarekin" epaileari erran zioenez.

Alkateak hemen inguruan bandera espainola paratzeko ohiturarik ez dagoela erran zuen eta bere erranetan "epaileak hori kontutan hartzen badu denuntzia artxibatu beharko luke". Bertzela, 6 urte bitarteko inhabilitazio zigorra jaso dezake Etxegaraik, bandera iraintzeagatik.



Lesakar aunitz joan behar izan dute Ameriketara artzai, argazkian 'Txapo' bizkaitarrarekin agertzen den Huarte baserriko David Aranburu difuntua bezala. Musikero lanetan ere aunitz aritu dira, 1955ko Behobiako bestetan Joakin Madariaga eta Marcelino Sanjurjo bezala



Lezora bidaia

Datorren asteazkenean, irailak 14, Lezora joateko bidaia antolatuko da, nahi duen guztiarentzat. Irteera goizeko 9tan izanen da. 11etan meza izanen da Lezon eta Etxeberri jatetxean bazkaldu ondoren, Jaizkibel eta Hondarribin barna bueltatuko dira. Txarrelak Marixus dendan salgai daude.

Euskal Jaia hilaren 11an

Igande honetan (irailak 11) burutuko da Tantirumairu dantza taldeak antolatutako Euskal Jaia. Bertan Bortzirietako dantza taldeek parte hartuko dute. Goizeko 11etan dianakin hasi eta herriaren barna ibiliko dira dantzaz dantza. Arratsaldean, haur jostetak, Burusarriko taldea eta txaranga izanen dira.

Beti Gazte txapeldun

Aurrendenboraldia bukatzeko Beti Gazte elkarteak antolatutako saria herriko taldeak eskuratu zuen, finalean Donostiako Danak taldeari 4-2 irabaziz. Hirugarren eta laugarren posturako partidua In-txaurren taldeak irabazi zion Berako Gure Txokoari. Hau irakurtzerakoan ligan hasiak izanen dira lesakarrak.

ttipi-flash

❖ **183.645**

pezeta eman dio Nafarroako Gobernuak akordeo orkestrari Nazioarteko Akordeo Lehiaketan parte hartzeko Pariserako bidaia ordaintzen laguntzeko.

❖ **Agñarako**

II. Moto Igoera igande honetan burutuko da arratsaldeko 4etatik aitzinera.

**KOXKILA
OSTATUA**

*Larunbatetan
mus txapelketak
sari ederrekin*

Zarandia 4 - LESAKA

**IRUBIDE
OSTATUA
ERRETEGIA**

Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA



bitxikeriak • opariak • eskulangintza

EKAITZA CAFE
GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko
toki egokia

Tfa: 948 - 627547
Plaza Berria 13 - LESAKA

EROSLE
LESAKA

Kalitate-prezio arteko
orekarik hobereena

**Frexkuena
zugandik
hurbilago**

Bittiria 67 - Tfnoa: 637264

Ettxalar

Larraburua elkartekoek bidaia egin zuten

Modu honetara, edateko ura garantia osokoa izanen da

PELLO ETA ALBERTO

Abuztuaren 20an egin zuten eta horrela bestetako astea borobildu. Jabier izan zen bidaiaren erdigune nabarmenena, han joan zitzairen denbora luzeez, gaztelua ikusi eta bazkaltzen. Arratsaldez Olite ikusteko probexu zuten. Iduri duenez, bidaiak errekista haundia du dagoeneko, egin den alditan jende aunitz animatu baita. Aurten 90 joan dira.

Ehiza postuen enkantea

Irailaren 10ean eginen da. Bertzalde, tortoila ehizatzeako postu zozketa egiten hasiak dira, ohiturari segituz, nahiz eta hondarreko urteetan ez den lehen bezalako pasarik ikusi.



Jende pila bildu zen aurtengo bestetan ere bertso saioa ikustera. Hala ere, aurtengoan giro motelxeagoa izan zen. Artxiboa

Santakruzko gurutzeak moldatuak

Borondate hutsez egiten diren lan horietakoa izan da. Kalbarrioko gurutzeak, lurrean finkatuak, okertzen ari ziren gero eta

gehiago, eta erabat iraultzeko arriskua haunditzen. Gurutzeetako harriak lurreratu, azpia zementoz gotortu, eta harriak, ongi gar-

bitu ondotik, berriz bere lekuan paratu egin dira.

Santakruzte egunean ikusteko aukera izanen dugu.

ttipi-flash

Gaiztakeriaz kaltetua TB errepikagailua

Antsolokueta aldean telebista ezin ikusi eta beren harrenkura agertu diote udalari. Honek dioenez, herriko telebista errepikagailuan norbaitek kalteak egin ditu, eta gaiztakeriaz gainera

Benta eskuz aldatu da

Ettxalarlatsako Bentak jabe berria du. Josetxo Beola, jabe berriak bizi berria eman nahi dio bentari, eta horretarako, moldatze lan dexente ere egin nahi ditu

Kanpotar aunitz

Pasatu eta gelditu ere egin da. Nekazal Turismoko etxeak beteak egon dira, jatekoez ezin gehiago eman eta, lo egiteko tokirik izan baltz, jende gehiago geldituko zen. Hor dago hutsunea.

XATURETXEA



JATETXEA

Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

BEREAU

jatetxea

Lesakako Bidegurutzean
Tfnoa: 637382 - LESAKA



«U S O A»

NEKAZARI KOOPERATIBA

Ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14



ETXALAR



**HERRIKO
OSTATUA
ETXALAR**

JATETXEA

© 635290 • ETXALAR

KOXXKONTA



*Ezkontza,
bataio eta
bileretarako
leku egokia*

Deitu
erreserbak
egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA

Igantzi! Igande honetan izanen dira Piedadeko besta eta Mendi Bizikleta proba

Aurten ez da bestarik izanen Berrizaunen

OSKAR TXOPERENA

Tradizio bihurtzen ari da Piedadeko Besta eta urteko Mendi Bizikleta proba egun berean egitea. Irailaren 11n egingen dira aurten. Goizez 10,30etan, Igantziko Mendi Bizikleta taldeak antolatuta, urteroko proba egingen da. Jakina den bezala, parte hartzea irekia dago nahi duen guzientzat, 600 pezeta izen ematearekin batera proba hasi baino ordu erdi bat lehenagorarte ordaindu beharko direlarik. Orain arte ibiltzen zirenei kamiseta bana ematen bazitzaie, aurtengoan Agustin Sainzek egingako plaka bana emanen zaie.



Igerilari berriek afari batekin eman zioten agurra aurtengo ikastaroari. Ikusten denez, talde ederra osatu zen azkenean. Arg.: OSKAR

Eguerdia aldera berriaz, bazkaltzera bilduko da Piedadeko auzotarra ez ezik hainbat herritarere. Eguraldiak lagunduz gero, auzoan egingen da eta bertzelaz berriz, Biltokin.

Bestarik gabe Berrizaunen

Zenbait arazo izan zituzten joan den urtekoak antolatzeko eta bazen beldurra aurtengoak inork ez ote zituenean.

Hala gertatu da. Espero dezagun heldu den urtean esfortzutu tiki bat egitea, beharrezkoak baitira auzoarentzat.



Elizako ataria moldatzen ari dira. jende dexente dabil lanean, momentuan, paretan harria agertu nahian.

Pala txapelketa

Lehendabiziko mailan Migel Angel eta Juanjo Txoperenak lortu zuten txapela, Jabier Gerra eta Juan Mari Arburuaren aurka. Bigarren mailan, Angel Urtegi eta Mikel Arburuak lortu zuten garaipena patxi Txoperena eta Agustin Sainzi irabaziz.

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 BERA



ANSONEA JATETXEA

Kontsultatu menu bereziak

Foruen Plaza 1, Tfnoa: 630 072 • BERA

ORDOKI ALTZARIAK

Estilo guztietako mobleak



ERAKUSKETAK: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALMENTAK: Plaza Zaharra 27 Tfnoa: 637034 - LESAKA



Bestak pasatu ondotik, eguneroko martxan sartu da jendea

Aurten hiru ume hasiko dira lehen aldiz eskolan

GARBIÑE ETA ELIXABET

Aurtengo besteei giro onean eman zaie bukaera. Azken egunean izaten den herri bazkarira, errate baterako, jende heldu eta gaztea bildu zen, bainan batez ere gazteak nabarmendu ziren.

Aipatzekoa da bertze urtetan baino jende gehiago eta giro alaiagoa izandu dela, eta bertako giroa trikitiak, Lizaso eta Amurizak eta Lesakako Izar txarangak alaitu zutela. Hala ere, gazte jendea kexu agertu da ordaindu zaiena gehiegi izan delako. Bazkolondoa, urtero bezala, plater tiraketa izan zen, eta Jose Luis Agesta suertatu zen irabazle.



Ageri den bezala, gustora aski ibili ziren gaztetxoek herriko bestetan euren zuten egunean Oskar

Agurra eta ongi etorria

Konturatuko zinetenez, berriemaile berriak izanen ditugu hementik aitzinera xoko

honetan. Marta Iturriak utzitako lekuan, bere ahizpa Elixabet eta Garbiñe arituko dira.

Zati honetan berriren bat agertzea interesatuz gero, badakizue norengana jo.

ttipi-flash

❖ **Elizako teilatua**
Haizeak gogor jotzen duenean teilarik ez erortzeko, alambre-sarea jarri dute.

❖ **Gimnasia jubilatuentzat**
Hirugarren urtez ikastaroak antolatuak dira. Urrian hasiko dira eta parte hartu nahi duenak Martin Ibarrolari eman diezaiola izena.

❖ **Hiru ikasle berri eskolan**
Unai Iparragirre, Itziar Mitxelena eta Ander Almandoz dira ikasle berriak. Ikasturte honetan 60 ikasle izanen dira denetara.

ALKOHOLIKO ANONIMOAK

HITZALDI PUBLIKOA

Irailaren 10ean, larunbata, arratsaldeko 8etan BERAKO KULTUR ETXEAN

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa

Altzate 28 - BERA

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIAK

BURDIN TRESNERIA

Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

LESAKA:

• Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- ✎ Langile Autonomoak
- ✎ Nekazariak eta mendi langileak
- ✎ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ✎ Lan-kontratarako laguntzak
- ✎ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ✎ Diru-laguntza ezberdinak
- ✎ Kontabilitateak
- ✎ IVA eta IRPF
- ✎ Errenta aitortpenak
- ✎ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ✎ Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

ARRANO



OSTATUA

Legarrea - LESAKA

Maierreka

Sekulako arrakasta izan du igerilekuak

Ofizialki hilabete honetan zabalduko bada ere, abuztuaren 6an ideki zen jendearentzat

JOSUNE ETXEBESTE

Abuztuaren 6an ideki zen igerilekua, eta egia erran, abuztuko egun sargoritsu horietan sekulako arrakasta izan du.

Dena dela, ofizialki hilabete honetaren eginen da inaugurazioa, hau idazterakoan eguna zehaztu gabe baldin bazeagoen ere.

Instalazioei dago-kionez, ongi hornitua dago igerilekua; aldagelak, dutxak, komunak, ostatua eta mahai batzuk ditu kanpoko aldean.

Momentuz hilabete honen erdirarte zabalik egonen dela segurutzat ematen da, eta hortik aitzinera eguraldiaren arabera.



Margari Capdeki, Sagrario Imaz eta Ascension Bertiz dira igerilekuan lanean ari diren hiru emakumeak.

'Lizun' gaztandegikoek Idiazabal Jatorrizko Deiturakolehiaketaren lehen saria irabazi dute bigarren urtez, eta uharteko Arakilen bigarren saria.

Artxiboko argazkia



Lehen saria bigarren urtez

Urtero Plentzian burutzen den lehiaketan, Petxenekobordakoek lehen saria lortu dute aurten ere, 'Idiazabal' Jatorrizko Deitura duten gazten sailan. Aurtengoan gainera, gazta gehiago zeu-

denez meritu handiagoa du. Sariarekin batera bi trofeo eta urte osoan saltzen dituzten Idiazabal gazta guztietan, kalitate labela dutela segurtatzen duen kontraktiketa bat izanzen dute paratzeko.



GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

BERA © 630735 • IRUN © (943) 622305



TELLETXEA MOBLEAK

Moble erakusketa handia

- Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu.
- Haritz, gereziendo, gaztainondo eta pinuzkoak.
- Armario enpotratuak, ate korredera edo normalakin.

Koltxoia aldatzeko aukera berezia aprobetxa ezazu.

1. kalitateko koltxoia oso prezio interesgarrietan

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - **DONEZTEBE**

Doneztebe

Zerbitzu Mankomunitateak egoitza berria zabaldu du

Merkatarien karrikako bulego honetan daude Zabor bilketa, Gizarte Laguntza eta Euskara Zerbitzuaren egoitzak

TXEMA ETA KARMELO

Ia herri gehienetako alkate edo kontzejalen presentziarekin, eta baita Jesus Arlaban Gubernuko ordezkariarekin ere zabaldu zen ofizialki egoitza berria.

Hemendik aitzinera, beraz, bertan egonen dira hiru zerbitzu hauek; Gizarte Laguntza (Begoña Alberro), Euskara Zerbitzua (Paula Kasares) eta Zabor Bilketarena (Itxaso Arretxea).

Telefonoa ere berria dute 451661, eta astelehenetik ortzirralera goizeko 8etatik 3etara bertan egonen dira jendea atenditzeko.

Zaborrendako bi alternatiba

Jesus Arlabanek in-
augurazio ekitaldi honetan erran zuenez, bi alternatiba ikusten die zaborren arazoari: batetik Baztan, Bortzirriak eta Malerrekarako intzineradore berri bat jartzea, eta bertzetik, zaborrak kanpora era-



Ekitaldi ofizialera herrietako ordezkariak etorri ziren

Arg.: Joxemanuel

matea.. San Miguel Doneztebeko alkateak erantzun zioenez, intzineradorea alternatiba izatea "ez dago hain garbi, orainarte izandako esperientzia ikusita batez ere".

Dena den, Arlabanek zioenez "ez omen da oraindik erabaki ofizialik hartu gai honi buruz", Hiri Hondakinen Plangintza Zuzentzailea onartu arte.

Galbarrenea errekaen bazterretan paretak egitea erabaki du udalak

Josu INZIARTE

Presa hautsi zene-
tik uholdeek sortzen dituzten arazoak mola-
datzeko, erreka baz-
terretan paretan altxa-
tzea erabaki du Do-
neztebeko Udalak. Obrak 16 milioi pe-
zeta inguruko aurre-
kontua dute.



ttipi-flash

Merka- tatal mundua euskalduntzeko egitasmoa

Helburu horrekin hasiak dira lanean Malerreka aldean. Horretarako, egitasmoaren fase guztiak aztertu zituzten joan den abuztuaren 17an Malerrekako Euskara Batzordekideek eta Doneztebeko udaleko ordezkariak.

FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEN



MALDAERREKA, S. L.

Egunaren 24 ORDUTAN
zure esku gaituzu.
ZERBITZU GUZIAK EGITEN DIRA
Tfnoa: 637404



SANTAMARIA

Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

Mari Cruz

LENTZERIA

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE

Irailak 7, asteazkena
Arratsaldeko 8tan altxareroak botako dira. Gero txistulariak herrian barna ibiliko dira. **9etan** baztan-zopak herriko ostatuan. **11,30etatik goizeko 4etara** dantzaldia Joxe Angel akordiolariarekin. Ondotik mozkor-salda.

Irailak 8, ortzeguna
10,30etan kalejira txistulariek alaitua. **11etan** meza nagusia. **5etan** pilota partiduak eskuz. **Arratsaldez eta gauz** dantzaldia Joxe Angel akordiolariarekin. Ondotik, mozkor salda.

Irailak 9, ortzirala
1,30etan herri kirolak:
 • Aizkora apostua: Latasa-Aierbe; Arria-Arria.
 • Harri jasotzea: Mitxel Latasak 200 kiloko harria jasotzeari ekinen dio.

2etan zikiro-jatea Lizaso, Murua eta Elizagoien bertsolariarekin. Malerrekako Euskara Zerbitzua eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin. **5,30etan** soka-tira eta toka saioa. **Arratsaldez eta gauz** dantzaldia ZEUS taldeak emana. Ondotik mozkor salda eta zingar jatea.

Irailak 10, larunbata
11etan mus txapelketa. **4etan** 'Plater Tiraketa'. **4,30etan** herriko plazan haurrentzat jokoak antolatuko dira. **7,30etan** aizkora apostua: Mindegia-Arrospereren aurka. **8etatik 10etara** dantzaldia. **12etan** gaupasa ZEUS taldearekin. **Goizeko**




Bazkalondoa, soinularia aditzen patxadan egoteko tenore polita da

Arg.: Nekane ARIZTEGI

5,30etan herri laisterketa.

Irailak 11, igandea
10,30etan laxoa gazte txapelketaren finala. **12etan** laxoa kopa txapelketaren finala: Baztan Errekaren aurka arituko dira. Ondotik Nafarroako bertsolariak bertso saioa eskainiko dute, Bianako Printze erakundearen laguntzarekin antolatutako ekitaldian. **5etan** eskularen erakusketa eta II. Gazta Lehiaketa. Arratsaldez eta gauz dantzaldia ERREKALDE ANAIK trikitilariak alaituta. Euskara Zerbitzu eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin.



Jakia eta edaria ez dira aurten ere faltatuko

Arg.: Nekane ARIZTEGI



**MALERREKAKO
 MANKOMUNITATEA**

31740 DONEZTEBE

Orain,

Doneztebeko Merkatarien Karrikako 9.ean gaituzue

- **Gizarte Laguntza** (BEGOÑA ALBERRO)
- **Euskara Zerbitzua** (PAULA KASARES)
- **Zabor bilketa** (ITXASO ARRETXEIA)

Astelehenetik ortziralera, 8etatik 3etara

Tfnoa: 451746

115,8 milioi pezetakoa da aurtengo udal aurrekontua


Horietatik zatirik haundiena, 83,6 milioi, herrian egin beharreko obretan erabiliko dira

IBAN ISASI

Inbertsionetan joanen da gastuen zatirik haundiena. Hona garrantzitsuenak: Elizako bidea zolaberritzea eta argiak jartzea, Karrika Berria zolaberritzea, Plazako urbanizazioa, kapilla moldatzea, mendi pistak moldatzea eta argi linea berritzea. Diru-sarrereri dagokionez, bertalde, garrantzitsuenak, kapital transferentziak dira 75,7; zergetan 6,8 milioi pezeta; tasa eta bertze diru sarreretan 14,8 eta ohizko trasferentzietan 11 milioi.

Bereau Janaridendan ebatsi dute

Lapurreta goizaldeko 4,30ak alera burutu



Bereau Janaridendan lapurrak sartu eta hirurehun mila pezeta eraman dute tabakotan

zen abuztuaren 29an Treseneako sotoetan dagoen janaridendan. Dirudienez ondoko etxe batekoek zerbait

somatu zuten ordu horretan bainan ez zuten deus sospetxatu, lapurrak gero ate nagusitik ateri baitziren.

Itxura denez, estatik sartu ziren, Tresenea k gibelatik duen barraketik, leiho batean burnia okertu eendotik.

Bitartean, bat kanpoan esperoan omen zegoen. Xehetasun gehiagorik ez dago, soilik 300.000 pezeta eraman zutela tabakotan.

Barnetegiak akitu

AEKk uda hontan antolatutako barnetegiak akitu dira. Lau txanda izan dira haue-tako bakoitzean 30 lagun inguru ibili direlarik.

Nekazal turismo etxeak

Uda osoan Iturengo nekazal etxeak bete beteak egon dira. Katalandarrak, frantziarrak eta bertze herri aunitzetako jendeak ezagutu dute gure herria.

Uda guzitako martxa errepikatu da aurtengoan ere

Euskaldun berriak, Iparraldeko haurrak kanpamenduan, festak...

IBAN ISASI

Udako modu berdintuan gabiltza. Euskaldun berriak etorri eta euskaldun berriak joan. Hortaz aparte jende gehiago izan da Zubietan. Iparraldeko 40 haur etorri ziren kanpamenduan bi aste pasatzera, eta herriaren ospitalitatea eskertzeko, musika talde bat ekarri ziguten gau on bat pasatzeko. Jaiak ere pasatu ditugu.

Gazteek estalpeko taberna ireki zuten eta boluntario asko izan zen serbitzeko. Nahiz eta jaiak astez izan, jende asko elkartu zen eta hori nabaritzen da atera zen dirua ikusita (milioi erdi pezeta pasatuxea). Orain falta den gauza bakarra, diru horrekin zer egin erabakitzeke bilera egitea da.

Dena den, abisua emanen da zer egin erabakitzean.



Goizueta

Etxebizitza berritan interesatuek izena eman dezakete

Horretarako Udaletxera joan behar da hil honen 30a baino lehen

ESTEBAN AROZENA

Udalak egin asmo dituen 18 etxebizitza sozialean bidean, beste pausoa eman da, eta oraingoa, oso garrantzitsua gainera: etxe hauetako baten jabe izan nahi dutenentzat izena emateko epea ireki dela. Horretarako, publiko eginak diren baldintzak betetzen direla argi uzten duen dokumentazioa hartu eta Udaletxera joan behar da. Interesatuena zerrenda osatutakoan, 18 titularrak eta ordezkokoak aukeratuko dira, propio horretarako prestatuak dauden normak kontutan harturik. Hauei gainbegirada bat emana



Juanxo eta Joseanton Apezetxeak txapela irabazi zuten

naz esan, 4.663.890 pezetatik gora irabazi, lehendik herrian edo kanpoan pisuren bat izan edo 1990az geroztik erresidentzia Goi-

zuetan ez daukanak, etxe hauetako baten jabe izateko inolako aukerarik ez duela. Ezinbestekoak diren hiru puntu hauek gain-

dituz gero, bakoitzaren egora familiarra kontutan hartuko da eta baita unitate familiarra osatzen dutenen kopurua zenbatekoa den.

ttipi-flash

- ❖ **Jon Bergaretxe**
gure artean izanen dugu hil honen 17an, larunbata. Kantaldia Herriko Plazan da 8,30etan. Arte eta Kultura egitarauen barnean Udalak antolatua da.
- ❖ **Antiguako torneoa**
Juanxo eta Josean Apezetxeak afizionatu mailako txapela eskuratu dute. Asier Olaizolak, semifinala galdu zuen Artola eta Imazen kontra. Xabier Berroetak 23 urte berrokoetan finala jokatu zuen irabazi ez bazuen ere.

Areso

Duela 200 urte frantzesek herria erre izana gogoratuko da larunbatean

Hori dela eta, ekitaldi ugari antolatuta daude

JUANA M^a SAIZAR

Irailaren 10ean gogoratuko da gertakizun horren urteurrena, eta hortarako, arratsaldeko 8,30etan meza izanen da hil zirenen alde, 9etan kalejira plaza aldera eta segidan ikuskizun berezi eta bizia. 10etan bertso afaria Euskitze, Haritz Lope-tegi eta Sorozabalekin. Udalak afaria gonbidatu die herriko jubila-tuei. Gero dantzaldia.



Festa lasaiak izan dira aurreten. Gehienbat herriko jendea ibili da. Guraso Elkarteak antolatutako afarian 160 lagun bildu ziren.

Zezena

Festetako egun batean errektadoreak izan ziren eta zezen bat hesi gainetik saltatu eta eskapatu egin zen. Eskerrak Juanito panaderoak adarretatik heldu eta eutsi ziola. Bestela, enbolatu gabe zegoenez, kalte asko izanen ziren.

Orain, festa bukatu direla bakoitza bere martxara itzuli da; kanposantuko obrak, errepidekoak, ehiztariak...



Eskolako bost irakasle kanporatuak izan dira

Lehen ikastolan aritutako irakasleak dira eta epaitegiaren azken sententzia beraien kontrakoa izan da

JOSEBA AZPIROZ

Azkeneko lau urte hauetan Leitza Eskolan lanean aritzen ziren 5 irakaslek ezin izanen dute aurten ohizko lanean ari, Nafarroako Gobernuak 94-95 ikasturterako kontratuaren luzapena onartu ez die-lako.

Duela 4 urte Nafarroako Gobernuak eta Ikastoletako Federazioak akordio bat sinatu zuten, eskolak, ikastolako irakasleak, irakasleak eta ondasunak bere gain hartuz. Horrekin batera, irakasleentzat oposaketa murriztuak egin ziren, nahiz eta Gobernuak ilegaltzat hartu zituen. Hori dela eta, bi aldeak bide judizialean sartuak ibili dira berriki arte. Hasiera batean irakasleen aldeko sententzia eman bazen ere, Gobernuak aurkeztutako errekurso baten ondorioz, sententzia berria irakasleen kontrakoa izan da.

Egoera honetan dau-



Leitzan 5 irakasle daude egoera honetan. Egoera berdinean aurkitzen dira Lekunberri, Irurtzun, Etxalar, Agoitz, Auritz eta Otsagiko bertze zenbait irakasle.

den irakasleak adierazi dutenez, *'Eskola Kontseilua alkatearengana laguntza eske joan denean, ez du sinadurarik lortu, ezezko erantzuna baizik'*.

Arazoa moldatu gabe dagoenez, laguntza deia luzatu dute herriko elkarte eta udal gorporazioari.

Mikel Illarregi da Leitza Eskolako 5 irakasle kanporatuetatik bat.



ttipi-flash

❖ Eskola Graduatu titulua

Hamasei urte baino gehiago baldin badituzu eta Eskola Graduaturik oraindik ez baduzu, orain duzu lortzeko aukera. Titulua atera eta bidenabarrez euskaraz idatzi eta irakurtzen ikasteko, apurta zaitetz udaletxean irailaren 20a baino lehen.

❖ 5.915 kilo kristal

Abuztuan 5.915 kilo beira edo kristal bildu dira zaborrontzi berezietan

❖ Liburutegiko obrak

Adjudikazio deialdira inor agertu ezenez, udalak zuzenean adjudikatzeko erabakia hartu zuen. Guztira 5,6 milioi pezeta kostako dira, horietatik 4,2 subentzionatuak.

GAZTELU ITURGINTZA

KALEFAKZIOA

Elgoien 32 • Tfnoa: 510086 • LEITZA

ttipi-ttapa

5.700 harpidedun
20.000 irakurle



☎ 510526
LEITZA

IDICOM PRODUKTORA

Ezkontza argazkiak, bideoak, komunioak,
urtebetetzeak, jaialdiak, kirolak,
musikaldiak, ospakizunak, erreportai
bereziak, bideoklipak, telefilmak...

Kalitatez eta merke eginak

Hona non duzun aukera !!!

Nafarroako Gobernuak ez du onartu Xorroxin eta Udalaren arteko akordioa

Bertan erabakia zen, udal-lizentzia Xorroxinek gestionatzea 10 urtez



JOSEBA IGARABIDE

Baztango udalak eta Xorroxin irratien artean lortutako akordioak ez du Nafarroako Gobernuaren oneritirik lortu. Akordio horretan eta bi aldeen konformidaz, berez udalarena den emisio lizentzia 10 urtez Xorroxin irratia gestionatzea onartua zegoen.

Nafarroako Jaialdiak

Balorazio positiboa egiten zaie pasa berriak diren jaialdi hauei. Jende aunitz ibili da ekitaldi guztietan. Euskaraz egin zen ekitaldian, bertako jendetzaren kopurua nabarmendu zen.

Oronozko kontsulta

Dena prest baldin badago ere, zenbait materiale falta direnez ez da oraindik edeki.

Ibilgailuen abiada mantoarazteko zerbait jartzeko eskaria bertazalde, tramitetan dago oraindik.



Felix Irigoienek Kubino zakurrak irabazi zuen Uharte Arakilen. Bigarren saria Patxi Etxeberriaren Lagun-entzat izan zen. Patxi erran digunez, Lagun-ek ez du gehiago parte hartuko, xahartu baita honezgero.

Bakarrik Baztango autoentzat

Aritzakun, Urritzate eta Napoleonen bideetan, Baztanen zerga edo inpuestoak ordaintzen dituzten auto eta motoak bakarrik ibili ahal izanen dira hemendik aitzinera. Halaxe erabaki du Baztango Udalak.

Kontzejal aldaketa

Begoña Etxandik (HB) arazo pertsonalengatik utzitako postuan Jose Manuel Azurmendi albaitea sartuko da.

Bertzalde, Pedro Perezek segituko du Baztango ordezkaria izaten Bertizko Partzuergo Turistikoan.

Julio Orozen kasua

Plutonio kontrabandoa dela eta, zer erran ugari ekarri du azken egunotan Julio Orozen kasuak. Zenbait komunikabidetan, ordea, modu sentsazionalista batez jorratu dute gaia eta familiakoei eraso egin zaie.

ttipi-flash

Amaiurko Gasna lehiaketa

Lehen saria SAT Amaiurrek aurkeztutako gasnak eskuratu zuen eta bigarrena, Etxetxikiak aurkeztutakoak.

Rafael Azpilkuetan oporretan

Rafael kantari espainiarra, Zuztoin egon zen abuztuan egun batzuk pasatzen.

Erratzuko camping-a

Obrak aitzinduak daude. Halere, aurtengo urte ona ezin izan dute aprobetxatu.

Amerikanoak Lekarozko bestetan

Herriko bestetan urteroko bisitaldia egiten dute aurten ere Lekarozko amerikanoek. Giro ederra izan zuten zikiro jatean.



JATETXEA

Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza

MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu

Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan

AMAIUR Tfnoa: 45 30 60

BAZTAN FUNERARIA

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA
SALMENTA • TRASLADOAK
Jaime Urrutia 53 ELIZONDO
Tfnoak: 580924-580814-580373

ARROPA DENDA



CERVANTES
HELVETIA SEGUROS



Era guztietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia



ERLOJU eta BITXI DENDA

ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO



Abuztuan beroa, bestak eta kanpotar pila izan ditugu

Belateko obrak martxan daude Berroeta eta Almandoz artean

PABLO MENDIBURU

Aurten kanpotar aunitz hurbildu da herrixka hauetara. Zigan eta Anitzen turistik hartzen dituzten etxeak beterik egon dira eta hortaz gain, bisitari aunitz ikusi dira.

Zigako bestak pasatu ziren. Abuztuaren 6an gazteen afaria eta gau pasa giro ezin hobean, eta 9tik 12ra, urtero bezala, giro herrikoiean Baztan zopak, dantzaldiak, meza eta hameketakoa, haurrentzako jokoak, pilota txapelketak (irabazleak Juan Martin eta Tomas mutiletan; M^a Angeles eta Pili nesketan), mus txapelketa (Victoriano eta Migelxo txapel-dun), zikiroa etabar. Aurten bi ekitaldi berri izan dira, bat Triputxin



Umore ederrean ospatu zituzten herriko bestak Ziga aldean. Zikiro jatean ere animazio polita izan zen. Arg.: PABLO

Peñaren bazkaria miradorean eta Martikorenaren kantaldia.

Orain Basaburuko azken besten zain, Anizkoak. Urtero bezala urriaren lehen astean izanen dira.

Belateko obrak Berroeta eta Almandoz artean

Belateko 'Hirugarren tramo' martxan dago. Mariezkurrenak eginen du bi herri hauen artekoa eta Almandoz-

tik goitiko bertzetik enpresa batek. Horretarako bertze tunel bat egin beharra dute 1.600 metrotakoa.

ttipi-flash

Basaburua Herri Kirol taldea

Proba Konbinatuen txapelketan dabil-tza. Neskak inoiz baino indartsuago, eta mutilak finalera pasatu nahian.

Montesen erakusketa

Montesen lanak ikusten jende pila ibili da.

Gartzaingo kasua


Baztango udalak Aritzia anaiek Guardia Zibilen esku zedula sufritu zituzten tratatu txarrak ofizialki salatzea erabaki zuen ahobatez.

Etxe berria Arraiozen

Etxe berri bat egiten ari dira herrian. Bertzalde, jendea kexu dago ETB gaizki ikusten delako.

Parkea

'Ejercito del Aire'n parkea egin gogo du udalak.



SOULE

GURUTZE eta HILARRIAK

☎ 45 30 38 ARIZKUN • ☎ 12 35 72 IRUÑA

MENDI OSTATUA

Santiago 25 - ☎ 580313
ELIZONDO

OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI

CEMEAL

c/ Araba, 10 - 1º C - Telf. 943 / 13 10 57 - 20800 ZARAUZ / Guipuzcoa

✓ **KIROL ETA TERAPIA MASAIEN IKASTAROA**
(Mediku Traumatologo eta masajista batek emana)

✓ **OSTEOPATIA IKASTAROA**
Masajista, mediku eta fisioterapeutei zuzendua
(Mediku osteopata batek emana)

RPS 272-94

EUSKO JAURLARITZAK HOMOLOGATUA

Matrikulak eta informazioa (943) 13 10 57 ZARAUZ

'Botikak Senegalentzat' deitu ekintza martxan da dagoeneko

Etxean dituzuen botika eta sendagai hondarrak Senegalerat igorri ahal izateko biltzea eskertuko da



Uda osoan barrena jende ainitz ibili da Saran

Artxiboa

MIXEL ETA JACQUELINE

Ekintza hunen lantzen ari zaizkigu Hendaiako 'Hopital Marin' eritexeko 35 langile eta hauetarik bat Alice Zumeaga saratarra dugu. Hauen xedea da Dakarretik ehun bat kilometrotara den Diakhao eskualderat joaitea bertakoei laguntzera. Heldu den urriaren 3tik 10erat ariko dira beraz nahitarat joan diren sendagile, mediku eta bertze langileak. Ekintza hunen oinarria da ahal bezainbat botika biltzea. Sendagileen lana hauen erabiltzen erakustea da, 'Familia Planning' aren aurkeztea eta kontrazepzioa bultzatzea. Horretarako, dena dela, etxeetan dituzuen edozein botika eta sendagai

hondarrak beharrezkoak dira. Zuen emaitza Alice Zumeagaren etxera ekarri edo zuen erabakia jakinarazi 59542625 zenbakirat deituz.

Sarako bestak 10etik 14erat

Buruilaren 10etik 14erat iraganen dira. Egitaraua aldiakari hunekin batera izanez, ez gira xehetasunetan sartuko. Bakarrik, guk ere besta zoriontsuak desiratzen daukitzuegula.

Berri latzgarriak

Agorrilaren 29an jende ainitz bildu da Sarako elizan istripuz hildakoei azken agurra emateko. Gertakari hortan 4 lagunek galdu zuten bizia; Phipippe Pontaut (41 urte), Stephan Delor (19 urte) eta Oihana Belis-Iratzokik (19 urte), azken hau Benoit Belis eta Terexa Iratzokiren alaba. Istripua agorrilaren 25ean gertatu zen autobidean 'Maignon' aldagunean Angelun. Laugarren hildakoa John Barr 22 urteko angelesa da, herrian ezaguna zombait urte 'Alda garaian' iragan dituelakotz. Heriotze hauetaz hunkituak diren guziei gure doluminak.

HERRIKO ETXKO EDANTEGIA

Michel eta Kattin
Guendiaïn

Tfnoa: 59 54 25 19
64310 SARA



NAKI ITURRIA

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Instalazio zaharren berritzeak

PORTERO AUTOMATIKOAK

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Jauregieta 12
© 635028 - 635246
31760 ETXALAR

Curtidores 5 - 1. ezk.
© (943) 61 24 24
20300 IRUN

ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

Zaldubia Poligonoa • © 580562
IRURITA - BAZTAN

SUKALDE ETA
BAINU MOBLEAK

Egoki-ren banatzaile
baimendua



Urdazubi

Jatetxe berri bat ideki da uda honetan

Azken urteotangoiti egin du turismoak eta baita berarekin zerikusia duten lantegiak

ALIZIA OLAIZOLA

Uztailaren 20an edeki zen ostatu eta jatetxe berri hau Leorlas auzoko Ikaburua izeneko etxean.

Etxe hau lezeetatik 50 metrotara dago, eta bertan, lehengo moduko janlekua prestatua dute. Bertako sukaldaritza tipikoa eskeintzen dute nagusiki, eta etxearen kanpoko aldean haurrendako jostalekua ere badute antolatua.

Honekin 9 jatetxe ditugu herrian eta ostatuak oraindik gehiago. Ez da batere gaizki herri ttiki batentzat.



Ikaburua jatetxe berria

Argazkia: Alizia

Turismo sasoia azken egunetan

Bisitari gehienak etorriak ziren, baina bitatik ere. Dena den, estatu espainiarretik baita bertze erresumegoiti egin du aurten.

ttipi-flash

❖ Bete beteak

Herriko ostalak eta logelak alokatzen dituzten etxeak bete dira udan honetan. Gauza bera gertatu da Josenea kanpalekuarekin.

❖ Lezeak

Sasoia akitu bitarte, goizeko 10etatik arratsaldeko 7ak bitarte idekita dago. Helduek 400 pta. ordaindu behar dute sartzeta eta haurrek 200 pta. Taldetan sartuz, 50 pta. kaso bakoitzean.

Zugarramurdi

Azketa pilotaleku berria, abuztuaren 14ean zabaldu zen

Horren karietara, pilota partiduak eta 300 lagun bildu zituen herri bazkaria egin ziren

KORO ETA MARGARI

Arras besta polita suertatu zen, eta herriko gehienak han ibili ziren. Han izan ziren ere Jose M^o Salanueva, Nafarroako Pilota Federaziokoak; Josexo Iraundegi Nazioarteko Federazioko Lehen-dakaria eta Ricardo de Leon, Nafarroako Gobernuko kontseilaria. Eguerdiko 12etan hasi zen afera hitzaldi, aurresku eta bedekazioekin. Gero bi pala partida, herrikoak eta profesionalak, eta ondotik,



Besta Ofiziala arratseko 9etan finitu zen. Hortik aitzina etorriko ziren herriko bestetako bertze 4 egunak, eta horietan, izan genuen frontoneko ostatua eta frontona bera gozatzeko manera.

frontonaren ondoan jarritako estalpean 300 lagunek bazkaldu zuten. Bazlaondoan, frontona egitearekin zerikusia izan dutenei oroitzapenak eman zitzaizkien eta segidan lau eskuzko partida jokatu ziren.

Abuztuaren 28an izan zen 'refeta'. Jende eta umore aldetik azken urteotako hoberena. Zikiroan 200 lagun, fuego kanta eta dantzak. Arratsaldean eguraldiak ez zuen batere lagundu, halere, jendea gustura egon zen.

EZKONTZAK

Ignacio Ansorena Beloki eta **Asuncion Zabaleta Santesteban**, Lekunberri eta Leitzakoa, uztailaren 2an.
Isidro Etxalar Etxaide eta **M^a Pilar Altzuguren Pikabea**, Ziga eta Berakoa, uztailaren 30ean.
Jose Antonio Oiartzabal Iribar eta **Sonia Elgorriaga Martiarena**, Berakoa, uztailaren 30ean.
Eugenio Goñi Etxenike eta **Ana Pilar Juarez Perez**, Lekaroz eta Iruñekoa, uztailaren 30ean.
Francisco Javier Iriarte Iriarte eta **Eva Gloria Lopez Dominguez**, Arizkun eta Narbartekoa, abuztuaren 5ean.
Carlos Iturriria Arnis eta **Ana Isabel Altzuarde Arregi**, Lekaroz eta Elizondokoa, abuztuaren 6an.
Pedro M^a Ibargarai Telletxea eta **Rosa M^a Agirre Azkarraga**, Narbarate eta Oronozkoa, abuztuaren 13an.
Pedro Jose Ziaurriz Oteiza eta **M^a Carmen Irungarai Irigoien**, Elizondokoa, abuztuaren 20an.
Domingo Ariztia Mendiburu eta **Sagrario Sarratea Etxeberria**, Azpilkueta eta Arizkungoa, abuztuaren 20an.
Francisco Zapirain Urdanpilleta eta **M^a Felisa Rosario Taberna Iturria**, Lesakakoa, uztailaren 30ean.

JAIOTZAK

Iñaki Irigoien Bertiz, Oronozkoa, uztailaren 10ean.
Paula Elizondo Barberena, Doneztebekoa, abuztuaren 8an.
Xabier Apezetxea Larrarte, Goizuetakoa, uztailaren 26an.
Xabat Zapiain Lasa, Berakoa, uztailaren 12an.
Maria de Umbe Bergara Silos, Berakoa, abuztuaren 9an.
Andoni Garrido Zamora, Berakoa, abuztuaren 19an.
Jorge Maylin Larrui, Elizondokoa, uztailaren 22an.
Alvaro Garde Larnaga, Lekarozkoa, uztailaren 26an.
Iñaki Alzuarde Arregi, Almandozkoa, uztailaren 28an.
Pablo Martín Larriu, Elizondokoa, abuztuaren 10ean.
Urko Mitxelena Larralde, Lesakakoa, uztailaren 18an.
Teresa Rojo Larralde, Lesakakoa, uztailaren 26an.
Battit Ondicola, Sarakoa, uztailaren 15ean.
Kelly Estelle Lamothe, Sarakoa, uztailaren 14ean.

HERIOTZAK

Angela Zabaleta Lizarraga, Leitzakoa, abuztuaren 12an, 87 urte.
Jose Egiguren Jauregi, Leitzakoa, abuztuaren 14ean, 85 urte.
Celestino Arribillaga Zelaieta, Berakoa, uztailaren 31n, 97 urte.
Gregorio Guillermo Marin, Elizondon, uztailaren 21ean, 65 urte.
M^a Martina Hualde Lastiri, Erratzukoa, uztailaren 29an, 92 urte.
Juana Jimenez Alvarez, Elizondon, uztailaren 31an, 74 urte.
Mauricio Martinez Cantero, Elizondon, abuztuaren 6an, 86 urte.
Jose M^a Eraso Zabaleta, Leitzakoa, abuztuaren 19an, 82 urte.
Ignacio Jaimerena Salaburu, Amaiurkoa, abuztuaren 21ean, 72 urte.
Beatriz Lamy Auzmendi, Elizondon, abuztuaren 21ean, 77 urte.
Jose Martin Tapia Tapia, Lesakakoa, uztailaren 30ean, 84 urte.
Jose Portu Iraola, Lesakakoa, uztailaren 31n, 76 urte.
Manuel Rodriguez Gomez, Lesakakoa, abuztuaren 10ean, 70 urte.
Juan Simon Goizueta Goñi, Lesakakoa, abuztuaren 17an, 50 urte.
Felipe Bergara Etxebeste, Arantzan, abuztuaren 6an, 77 urte.
Juan Iturbide, Arantzan, abuztuaren 17an, 80 urte.

BEINTZAKO OSTATUA
 Tfnoa: 45 00 14

BEINTZA LABEIN


 Miren Gortari Sein
 © 592310
ORNOZ-MUGAIRI
MIREN
 ileapaindegia
 ORDUA ESKA EZAZU

Kaixo, Emakume eta Gazte
Lulu
 • Gaur eguneko arropa gaur eguneko jendearentzat
 • Neurri guztiak
 Renteria 4, S. Miguel • IRUN (616165)

FZ
 FOTO ZALDUA
ZURE EZKONTZARAKO
FOTO eta BIDEO Erreportai on bat
 ELIZONDO ☎ 580491
 DONEZTEBE ☎ 450364
 MARKOEN TAILERRA eta zure karreteak ORDU BATEZ ERREBELATZEN ditugu "FUJI" kalitatearekin

B
BIDASOA
 GARBIKETAK
 ☎ 630557
 • BERA •
GARBIKETA ZERBITZU BERRIAK:
 ✓ Alfonbrak
 ✓ Tapizeriak
 ✓ Mokatet
 ✓ Tresilloak
 ✓ Autoen tapizeriak
 ✓ ...
 Norberaren etxean egiten dugu lana


ZALDO OSTATUA
LESAKA

BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta	
Urgentziak.....	088/061
Osasun Zentruak	
Elizondo.....	452367 / 580235
Doneztebe.....	450300
Lesaka.....	637428 / 637336
Leitza.....	510248 / 510573
Nafarroako Ospitaleak	
Nafarroako ospitalea.....	102100
SSko urgentzi zerbitzua.....	246750
Virgen del Camino erresidentzia.....	109400
Gurutze Gorria.....	226404
Gipuzkoako Ospitaleak	
Irungo ospitalea.....	614600
Gipuzkoako ospitala.....	460299
Erresidentzia.....	453800
Anbulatorioak	
Irun.....	630264/621106
Anbulantziak	
Oitz.....	450242/450342
DYA	
Lesaka (larrialdiak).....	(943) 464622
Doneztebe (larrialdiak).....	171717
FUNERARIA	
Doneztebe.....	637404
Elizondo.....	580924
Lesaka.....	637404
Suhiltzaileak	
Oronotz-Mugaire.....	592255
Garraioak	
Bidasotarra.....	631150
Baztanesa.....	580129
Leitzaran.....	515018
Aberiak:	
Iberduero.....	450335/450336

Nafarroa Oinez Irailaren 18an Beran

Heldu den asteburuan ospatuko da Beran Nafarroa Oinez en aurtengo edizioa. Igande horretan klase guzitako ikuskizun eta entretenimenduak aurkituko dituzte bertara etorriko direnak, zirkuitoak dituen zortzi areatan banaturik. Goizeko 9,30-etan hasi eta



iluntzerarte erakusketak, txarangak, kantariak, dantzariak, herri kirolak eta bertze hainbat gauza. Aurtengoan, gainera, ba omen daude hainbat nobedade: errate baterako *Trialsin* izeneko ikuskizuna edo Garmendikobordako arean jarriko den alkoholik gabeko txozna.



Abuztuaren 3an Doneztebeko Juansenea etxean 'Ate ireki eguna' ospatu zen. Bertara hurbildu ziren nekazariak, teknika berri eta zonaldean ematen ahal diren laborantza ezberdinen berri izan zuten ITGko teknikoek eman zizkieten azalpenak.

Helduen Lanbide Formakuntzarako ikastaroetan izena emateko azken eguna irailaren 15a

Garaiotan urtero gertatzen den bazala, zabalik daude aurten ere Nafarroako Gobernuak helduen lanbide formakuntzarako luzatzen duen eskaintza. Jostura, informatika, ileapainketa eta gisa honetako ikastaroez gain, kasik edozein ikastaro eskaintzen dira, aukera zehatz horretarako gutienez 15 lagun biltzen baldin badira. Interesatuak irailaren 15a baino lehen eman behar du izena, bakoitzak bere Herriko Etxean. Informazio gehiagorako deitu 630411 tfnora.



"Urtea bukatu baino lehen eskualde honetako biztanle guzietan TB kate pribatuak ikusiko dituzte". Honela mintzatu zen Lopez Borderias, Lan Publikoetako kontseilaria, Gorramendi, Mugairi eta Doneztebeko errepitidoreak ikusi ondotik.

zimeldi

ALTZARIGILEA

▲ Kolorea gustatzen zaizu? sar ezazu kolore pixka bat zure etxean altzari tintatuak egiten ditut

Deitu eta neurriak hartuko dizkizut

© 387017 • ETXALAR

LESAKAKO ZUBIA

N-121-A

ZUMELDI

ETXALARKO BENTA

fm

FOTO
MENA
ELIZONDO

Ezkontzetako erreportaiak
argazkiak eta bideoa

MARKOAK eta MOLDURAK

Eta orain, **DONEZTEBEN**
ere

Tfnoa.: 45 0825 • Nagusia 4 • DONEZTEBE

Tfnoa.: 58 01 55 • Santiago 40 • ELIZONDO

'IV. Gure Txokoa Igeriketa' txapelketa abuztuaren 31an ospatu zen

Baztan, Leitzaldea, Malerreka, Bortziriak eta Irungo 94 igerilarik parte hartu zuten

Abuztuaren 31an burutu zen Gure Txokoa elkarteak antolatutako igeriketa txapelketaren laugarren edizioa, eskualdeko eta Irungo 94 igerilariren parte hartzearekin. Eguraldiak sobera lagundu ez bazuen ere, neska-mutiko aunitz aritu ziren Berako igerilekuan bi orduz.

Benjamin mailan, Lorea Sarobe nagusitu zen nesketan eta Alberto Saseta mutiletan.

Alebin mailan, Aimar Fernandez irabazi zituen bortz probetatik hiru mutiletan. Bizkarka eta tximeleta erara, Mikel Nieve eta Santi Uterga izan ziren irabazleak. Nesketan, Lorea Arburuak irabazi zituen hiru proba eta Elena Barbero eta Garbiñe Fagoagak gainerakoak.

Infantiletan, Euna-



Gure Txokoa elkarteak laugarren urtez antolatutako igeriketa txapelketan 94 neska-mutikok parte hartu zuten

te Lopez eta Ane Sasetaren artean banatu ziren sariak, lehenbiziokoak hiru proba eta bigarrenak bi irabazi baitzituzten. Gauza beretsua pasatu zen

mutikoetan, Beñat Saralegi hiru probetan gailenduz eta Iñigo Mangado bertze bietan.

Kadete mailan ere izan ziren proba batean baino gehiagotan na-

gusitu ziren igerilariak. Honela, nesketan, Saioa Ataunek hiru proba irabazi zituen eta Anelis Perotxena eta Beatriz Goikoetxeak bana (brazza eta bizkar-

ka). Mutiletan ere, hiru proba irabazi zituen Ruben Castrok, Juan Angel Perotxena eta Luismi Garciari bertze bana utziz (brazza eta bizkarka).

"Mountain Bike Routes" mendi bizikleta probaren bi etapa Baztanen burutu ziren

Abuztuaren 27 eta 28an burutu ziren Baztanen "Mountain Bike Routes" izeneko mendi txirindula probaren bi etapa. Proba honekin, urrian ospatuko den 'Transpain 94' Espainiako Itzulirako txirindularien aukeraketaren gogorra. Bertan, Tomas Vicente nagusitu zen, Rafael Rodriguezen aitzinetik. Emakumeei dagokienez,

Larunbateko etapa laburra zen (25 kilometrokoa) baina hagitz gogorra. Bertan, Tomas Vicente nagusitu zen, Rafael Rodriguezen aitzinetik. Emakumeei dagokienez,

Margari Aierza lesakarra bigarrena izan zen, Rosa Tenaren gibelatik. Igandeko ibilaldia luzeagoa zen arren (45 km. inguru) zailtasun gutxiagoa zuen. Hemen ere, Tomas Vicente nagusitu zen, oraingoan Straat Per Thomas suediarren aitzinetik. Emakumeetan postuak errepikatu ziren biharamonean eta sailkapen orokorra era berean gelditu zen.

Honetaz gain, probako gazteena zen Gorka Otondo baztan-

darrak proba bikainak egin zituen eta hirugarren gelditu zen junior mailan. Gonzalez Urxulutegi doneztebarrak maila polita erakutsi zuen 22 eta 24 postuetan sailkatuz.

Lehen etapan 49 lagunek parte hartu zuten eta bigarrenetan 47k, hasieran espero zena baino guttiago. Halere, parte hartzeko 4.500 pezeta ordaindu behar zirela kontuan hartuz, normala da bertako txirindulari gehiagok parte ez hartzea.



Nafarroako aizkolari txapelketaren finalistak erabaki ziren Lakuntzan

Abuztuaren 21ean egindako saioan, Larretxea, Mikel Mindegia, Jaunarena, Nazabal eta Senosiainek eskuratu zuten finalerako txartela

Abuztuaren 21ean, Nafarroako aizkolari txapelketarako kanporaketa ospatu zen Lakuntzan. Hameka aizkolari aritu ziren buruz buru finalerako postu baten bila, baina azkenean bakarrik lehendabiziko bortzek lortu zuten.

Bi kanaerdiko (54 Ontza), 60 ontzetako bertze bi eta 72 ontzetako enbor bana zen aizkolari bakoitzak burutu beharreko lana. Loteak eta txandak zozketatu ondoren lehengo 4 aizkolariak plazaratu ziren: Felix Etxeberria, Jose Juan Barberena, Juan Jose Lopez eta Jose Antonio Loiarate. Lehengo txanda honetako azkarrena Etxeberria izan zen (15' 11"), bigarrena Lopez (15' 50"), hirugarrena Barberena



Donato Larretxea izan zen onena Lakuntzan

(17' 10") eta laugarrena Loiarate (18' 19").

Bigarren txandan faboritoak sartu ziren: Donato Larretxea, Mikel Mindegia, Antonio Jaunarena eta

Antonio Senosiain. Iaz bezala, Larretxea izan zen azkarrena izugarrizko denbora eginez (11' 48"), bigarrena Mindegia (13' 21"), hirugarrena Jaunarena

(14' 33") eta laugarrena Senosiain (15' 05").

Hirugarren txandan iazko finalista bat eta bigarren mailako txapeliduna sartu ziren: Floren Nazabal, Patxi Mindegia eta Jaime Gorriti. Txanda honetako azkarrena Nazabal izan zen (14' 33"), bigarren Mindegia (15' 25") eta hirugarren Gorriti (20' 59").

Honela bada, txapelketa honetako finala honako bortz aizkolarietako jokatu dute: Larretxea, Mindegia, Jaunarena, Nazabal eta Senosiain. Bikotekako finalean, Felix Etxeberria sunbildarra arituko da arestiko bortzekin batera.

Jose Antonio Loiarate eta Jaime Gorriti berri, bigarren mailara jeitsiko dira datorren denboraldian.

LAXOA

Gazte eta kopa txapelketen finalak igandean Oitzen

Igande honetan, irailak 11, jokatu dira Oitzen Baztan-Malerrekako laxoa txapelketaren bi final. Herriko bestak direla probetuz, 10,30etik aitzinera gazteen txapelketaren finala jokatu da. Honen ondotik, 12ak aldera, Kopa txapelketaren finala jokatu da, Baztan eta Errekako ordezkarien artean. Laxoa joko ikusteko azken aukeretakoa bat izanen da hau aurten, denboraldia, udarekin batera, bukatzeko puntuan baitago.

Berako Gure Txokoako nesken futbol taldeak Liga Nazionala jokatu du

Berako Gure Txokoa nesken futbol taldeak Liga Nazionalen jokatu du 1994-95 denboraldian.

Azken denboraldian, Gipuzkoako ligako txapelidunak eta kopako finalistak serratatu ziren beratarrek eta mailaz igotzeko eskubidea zuten. Halere, arazo ekonomikoak zirela eta hasiera batean uko egin zioten igotzeari. Orain, 'Bidaso-tarra' autobus enpresak bi urtez taldea pa-

trozinatzea lortu da eta maila berrirako pausua eman dute.

Denboraldi honetan 8 taldek jokatu dute (4 nafarrak eta Gipuzkoa eta Bizkaia bina). Jose Luis Altuzagarai 'Zikiro' entrenatzailearen erranetan, "aurtengoan bertze erritmo batean jokatu beharko da eta jokalariek maila berrira egitea da gure asmoa. Ilusio haundiarekin gaude eta erdialdean sailkatzea espero dugu".



Jose Luis Altuzagarai izanen da entrenatzailea aurten ere

Hamabostaldiko jokaldiak



Gure Txokoa Berako nesken futbol taldea.

Futbol zelaietan eskubide osoz lortutakoa ekonomikoki ere aitzinera ateratzeko aukera izan den aurten, bi urteko patrozinatzailea lortu ondoren. Ea liga nazionalen ere ongi moldatzen diren...

Eskuz banakako pilota txapelketa.

Retegi II eta bertze pilotari garrantzitsuek ez dute parte hartu, lesioak medio finala gibelutz joan da, prezio ikaragarriak zirela eta frontoiak erdi hutsik... Halere, zorionak Arretxe eta Errandoneari.

AGENDA EGUNEZ EGUN

NAFARROA OINEZ

BERA

► Irailaren 18an

Nafarroa Oinez-94 Beran. 9 kilometroko zirkuitoa; ikuskizunez, jenez eta edariz betetako 8 area eta ongi pasatzeko aukera paregabea.

KANTALDIK

GOIZUETA

► Irailaren 17an

arratseko 8,30etan, Jon BERGARETXE kantaria Herriko Plazan.

BERTSOAK

ARESO

► Irailaren 10ean

gaueko 10etan bertso afaria Euskitze, Haritz Lopategi eta Sorozabalekin.

DANTZAK

LESKA

► Irailaren 11an

EUSKAL JAIA, Tantiur-mairu dantza taldeak antolatuta, Bortzirietako taldeekin. Arratsalde, Burusarriko dantza taldea eta txaranga.

GUARDIAKO BOTIKAK

► Irailaren 5etik

11ra Arantza, Doneztebe, Elizondo (F. Lezaun) eta Goizueta.

► Irailaren 12tik

18ra Lesaka, Sunbilla, Elizondo (Iturralde), Goizueta eta Leitza.

► Irailaren 19tik

25era Bera, Ituren, Irurita, Urdazubi eta Goizueta.

ERREZETA



Potxak almejekin

Osagaiak

• 500 gr. potxa (babarrun frexkoak) garbiak • 3 baratzuri hortz • 2 tipula • 4 tomate gorri • 2 piper berde • olioa 2 baso • gatza • piper hautsa gorria • almejendako: • 200 gr. almeja • 2 baratzuri hortz • ardo txuri baso bat • perrexila • irina

Prestatzeko manera

Eltze batean potxak -babarru-

nak-, barazkiak ongi xehetuak eta bertze osagai guztiak jarri txapan edo su xuabeen, hiru minutu t'ardi inguruz.

Bertze eltze batean baratzuria xerra finetan xehetuta eta olioarekin jarri ondotik, almejak bota. Gaietik irin pixka bat eta ardo txuria bota eta su xuabe-xuabeen utzi egin arte.

Serbitzerakoan, potxak plater ba-



Imanol OREJA
Ansonea
Jatetxea
• Bera •

tean paratu eta gaietik 2 goilarakada almeja erantsi eta perrexilaz apaindu.

On egin.

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

• **Zerrikumea** (20 kilokoa): 5.000 pzta.
• **Zerri gizena** (95 - 100): 186 pzta/kilo
• **Zerramak**: 110-120 pzta./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

• **Aretze gizenak**:
Idixkoak: Pzta/kg. Kanal
Extra 600
1.koa 570
2.koa 550

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal
Extra 610
1.koa 580
2.koa 550
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

• **Aretze tikiak** (15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruxak 25.000 eta idixkoak 36.000 Pzta.
Mestizoak: urruxak 38.000 eta idixkoak 50.000 pzta.

• **Behi zaharrak**:
Behi nabar gizena: 440 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 500 Pzta /Kg. Kanal.

DATU-HITURRIAK: EHNE,
ZUBIRIA MINDEGIAK, KIWI BAZTAN...



❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza
• **Bertako sagarrondoa** 930.
• **Udareondoa** 930 pta.
• **Gereziondoa** 1.050 pta.



❖ BARAZKIAK ❖

• **Piper txorizero** zientoa 800.
• **Piper morro** zientoa 800.
• **Piperminak** zientoa 600.
• **Valentziar tipula** zient. 250.
• **Letxuga** zientoa 400 pta.
• **Azelga** zientoa 400 pta.
• **Pepino** sorta 25 pta.

ETXANDI TXOKO erretegia

Bazkari, afori eta gosariak

ITUREN
Tfnoa: 45 04 91



KATTU

OSTATUA
JATETXEA

- Karta
- Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • LESAKA



JAKIN BEHARREKOA

Odol ematea: Beharrezkoa eta ziurra



Odol ematearen bidez, beharrean dauden pertsonak lagutzen dira. Gainera, odola ematea derrigorrezkoa da osasun sistemak funtziona dezan

Euskaldunok jende solidarioa gara odola emateko kontuan, bertze komunitateekin konparatuta. Nafarroan, 29.533 odol emate egin ziren iaz. Baina azken urteotan jendeak pixko bat gibelera egin du likido preziatu hori ateratzeko unitateen aitzinean, eta horregatik, eskaria gero eta haundiagoa den arren, eskaintza gero eta tikiagoa da. Horren atzean HIES edo SIDAren eta bertze gaixotasun kutsakorren mamua eta odola emateko prozesuan eritasunen bat harrapatzeko arrazoi gabeko beldurra egonen dira seguraski. Horregatik jakin behar dugu odola ematerakoan eritasun bat harrapatzea ia ezinezkoa dela, horretan paratzen den arreta eta hartzen diren neurriak zorrotzak baitira.

Odola nork eman dezake?

Teorian, osasuntsu dauden pertsona guztiak odola ematen ahal dute. Halere, odolaren bidez eritasunen bat kutsatzeko arrisku tikiarena baldin badu ez da odol

emaile bezala onartua izanen. Gauza bera gertatzen da droga arazoak dituztenekin, Hepatitis B edo C izan dutenekin eta kontrolatu gabeko harreman sexualak —homosexualak nahiz heterosexualak— dituztenekin.

Kontutan hartu behar da, odola ordezkia dezakeen produktu artifizialik ez dagoela, beraz, osasuntsu dauden izakiek emandakoaren bidez lortzen da, nahitana-

hiez. Odolak, oxigenoa eta bertzelako osagarri kimikoak eramaten ditu organu ezberdinetara eta gure gorputza kanpoko agentee-tatik babesten du.

Odol emate osoa

Normalean odol emate osoa egiten da. Hamar minutu eskaxetan 450 mililitro odol ateratzen dira. Honetatik **globulu gorriak** (anemia eta operazioetako odol galtzetan erabiltzen da), **plaketak** (odola gatzatu edo gogortzeko) eta **plasma freskua** (odolaren zati likidoa, proteinetan aberatsa) lortzen dira.

EROSKI aldizkaritik hartua

MAGNETISTA - NATUROPATA ZURE BEGIAK ZAITZEN DITU

☺ BISTAREN ERREKUPERAZIOA

- Begi alferrak, estrabismoa, kataratak, retinosia, begietako neuritisa, begietako infekzioak, konjuntibitia, miopia, hipermetropia.

☺ REHABILITAZIOA

- Artrosia, Artritis erreumatoidea, bihurdurak, lunbalgiak, zerbikalgiak, psoriasis, diabetea, azaleko alergiak, zizareak, oinetako izerdiak, birusak, asma, buruko minak, kolesterola, erreuma, prostata

Kontsulta Ordutegia: Arratsaldeko 2etatik 10etara (Ordua eskatu)
San Marcial 7 - 4. - IRUN © (943) 62 30 55

BESTAK

OITZ

► **Irailaren 7tik 11ra.** Ikus xehetasunak 16. orrialdean.

ELBETEA

► **Irailaren 15tik 18ra.**

SARA

► **Irailaren 10etik 14erat.** Ikus xehetasunak aparteko gehigarrian.

ARESO

► **Irailaren 10ean** frantzesek herria erre zuteneko 200. urteurrenaren gogoratzea.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

► **Irailaren 3tik 29ra** Koldo Sebastian margolariaren oleo erakusketa Arizkunenea Kultur Etxean. Lanegunetan arratsaldeko 7etatik 9etara eta jai egunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.

TAILERRAK

ELIZONDO

► **Larunbatero** urriaren 15a bitarte, bideo tailerra, 4,30etatik 7,30etara (guztira 28 ordu). Arizkunenea Kultur Etxean.

ANTZERKIA

ELBETEA

► **Irailaren 16an** arratsaldeko 5,30etan haurren antzerkia.

ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU (9) 48 - 63 11 88 ora

ETXEBIZITZAK

Pisu bat alkilatuko nuke. ☎ 294193 edo 340339.

LESAKA. Txaleta, jardina eta frutondoekin salgai. Prezio negoziagarria. ☎ 637453.

SALDIAS. Borda eta lau soro salgai (borda bakarrik edo borda eta soroak). Ura hurbilean dauka. ☎ 510484.

Etxe edo baserri txiki bat alkilatuko nuke. ☎ 451746 (Paula-bulego orduetan).

DENETARIK

Neska bat behar dugu pisua osatzeko Gasteizen datorren ikasturtean. ☎ 450818.

Neska bat behar dugu pisua osatzeko Iruñean datorren ikasturtean. ☎ 450818.

Eskopeta AC salgai. PR modeloa, 12 kalibrekoa eta bi kainoi paraleloan. ☎ 627618.

Barra bat alokatu nahi baduzu, deitu ☎ 450277ra 9etatik 12ak arte. Edorta.

Negozio bat traspasatu edo eskuz aldatzen da Baztanen. ☎ 592245. Denda orduetan.

Sukalde-kalefaktora salgai Egoera onean dago. ☎ 510296.

Tama markako kaja (tanborra) salgai 13.000 ptatan. Txaranga edo fanfarrare batetan jotzeko aproposa. ☎ 630637 (Mikel) gaueko 9etatik aurrera.

Irristailu edo patinak salgai. Berriak, 37 zenbakikoak. Oso merke. ☎ 514175 (1etatik 2etara).

Lesakako ardotezia salgai. ☎ 637453.

Ikasle bat behar da Iruñean pisua osatzeko. ☎ 637985-637895.

Bi neska behar dira Burlatan pisu bat alokatzeko. Irailatik aurrera. Ekonomikoa. ☎ 453174.

Iruñean Barañainen pisua osatzeko beste neska edo lagun bat behar

dugu. ☎ 510203-510008.

Kiwi plantazioa alokatuko nuke Igantziko Bentako Gaiakola baserrian. Orain 5 urte landatutakoa eta hektarea t'erdiko zabalera du. ☎ 637397 edo (943) 279983.

Sei gimnasia mahai motordunak salgai, jubilatuetarako espezialak. Prezioa: 1.250.000 pza negoziagarriak. ☎ 637011 (M^a Angeles - M^a Ixabel)

Erremolke txiki bat salgai. ☎ 610762.

AZIENDAK

Behi holanesa salgai. 5 urtekoa eta umatu berria ☎ 635188 (eguerdi eta arratsez).

Ahari bat salgai. Hiru urtekoa eta mutur horia. ☎ 610638.

Bi ahare salgai. Bat pintarria 3 urtekoa eta bertzea horia 4 urtekoa. ☎ 634169 (Juana M^a-Benito).

Husky Siberiarra salgai. Emea da eta bi hilabete ditu. ☎ 630467 (Tobi)

Ahariak salgai Hernanin. Mutur gorriak eta adarga-beak. ☎ (943) 331686 (9etatik aurrera).

Mando bat salgai. ☎ 615016.

LANA

Tartak egiten dira: urtebetetze, ezkontza etaberrarako. ☎ 631283.

Jostun lanak egiten dira. Kojinak, gortinak eta haurrendako arropak orokorrean. ☎ 631283.

Kartelak, Bisita Txartelak, Talonarioak... egiten ditugu. Merke eta azkar. ☎ 631188 (bulego orduetan).

IBILGAILUAK

Mobilette GAC gorrixta salgai. Motor berri berria. ☎ 450575 (Eguerdi eta arratsez).

Renault Clio 1.700S salgai, NA-AG matrikuladuna extrekin. ☎ 630492 (8etatik aurrera).

Bi plazako kamioitxoak salgai. 3 urtekoa, 50.000 km eta gibelaldea estali gabe. Egoera arras onean, 315.000 pza. ☎ 631339 (Joakin).

AGURRAK

Leitzako Pilarrentzat. Ingeles asko ikasi eta ongi pasa Irlandan.

Etxalarko Izaskun eta Maiderrizorionak zuen 14. urtebetetzeagatik. Zuen lagunak.


Doneztebeko Nereari zorionak bere 15. urtebetetzean familiaren partetik. Orain bezain sinpatika segi eta tonterriak utzi. Muxu bat. Familia.

Idoia Unsiñon Taberna: Zorionak 13. urtebetetzean (abuztuak 30). Muxu haundi bat osaba Josuren partez, Alcalá Mecotik.

40 ESTABLEZIMENDU ZURE ZERBITZURA

**13 arropa denda, kirol denda bat, optika bat,
2 oihal denda, lentzeria bat, zapata denda bat,
4 kafetegi, inprimategi azkar bat, kristaldegia bat,
2 banketxe, bulego materiala, argazki denda bat,
dekorazio denda bat, supermerkatu bat,
aseguro etxe bat, ileapaindegi mixto bat, drogeria bat,
bidai agentzia bat, PVCKo nahiz zurezko leiho eta ateak,
hizkuntza akademia bat, moketak eta pinturak, etxe saltzaile bat...**

**Denetarik gauzarik hoberenak.
Irun erdi-erdian. Parkina eta guzi.**





ERAKUSKETA ZURE ONDOAN

BIDASOA Karrika 45-60 • Tfnoa: 948-630537 • BERA

erakusketa

*Senar-emazteen
logela*

erakusketa

*Sukaldea-Bainua
Arm. enpotratuak*



erakusketa

Jangela

ASTELEHENETIK
LARUNBATERA
IREKITZEN DUGU,
GOIZ-ARRATSALDEZ

erakusketa

Gazteendako



E Z K A L O

JOSE ANTONIO ELIZONDO Jauna • API 129

- **Inmobiliaria**
- **Aurrekontuak**
- **Etxeak, baserriak eta pisuak**
- **Errotak**

Larunbat eta igandetan zabalik ordua eskatuz gero

INFORMAZIOA

• **DONEZTEBE**

Intzakardi 2 • Tfnoa: 4515 18

• **IRUÑEA**

Amaia 38 behea • Agentzia berria



EUSKARA IKASTAROAK

EZ UTZI
GERORAKO
HASI AURTEN!!



BATZUK IKASI ZUTEN ETA BATZUK
HORRETAN ARI DIRA, ZUK ZERGATIK EZ?

MAILA GUZIAK

Euskalduntze - EGA - Sakontze - Alfabetatze

MATRIKULATZEKO EPEA

Irailaren 5etik 28ra